

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 11/2014

(...) ERAKUNDE AUTONOMOKO GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARI LANPOSTUA BETETZEARI BURUZ (...) SINDIKATUKO ORDEZKARI (...) JAUNAK JARRITAKO SALAKETA EZ ONARTZEA

1.- 2014ko abenduaren 23an, interesdunak, (...) sindikatuko ordezkariak, salaketa bat erregistratu zuen Etika Publikoko Batzorde honen aurrean "erakunde autonomoak legez kontrako egintza gauzatu zuelako –zer egunetan ez dakigu– (...) goi-kargudunaren idazkari plaza betetzean (520010 kodea, 182. dotazioa) [...] pertsona bat izendatu zela presidentearen idazkari".

2.- Salaketa hartan argumentatu zen hizpide dugun lanpostua betetzeko prozeduran ez zela eskatu "administrari laguntzaileen edo administrarien kidegoan eskarmentua izatea (bi urtekoa eta urte batekoa, hurrenez hurren, aipatutako kidegoetan)", eta ez dela proba objektibo bat egin hautagaien gaitasuna ebaluatzeko "erakunde autonomoko lanpostu hori bete behar izan zen azkeneko aldiaren egin zen moduan".

3.- Salatzaileak iritzi dio lanpostu hori arauz betetzeko, haren kidegoan gutxieneko eskarmentua izatea eskatzen dela indarreko lanpostu-zerrendan (LPZ). Horren erakusle, pertsonal-kudeaketako sistema informatikotik (EIZUtik) 2012ko abenduaren 1ean ateratako irudia aurkeztu du salatzaileak. Irudi horretan ikus daitekeenez, "00" ikurra ageri da eskarmentuari buruzko atalean. Salatzaileak gogorarazi du, baita ere, lanpostu-zerrendetan izandako aldaketetatik sindikatuei jakinarazitako horietako bakar batean ere ez dela baldintza hori ezabatu; eta ondorioztatu du hizpide dugun baldintza betetzen duen pertsona batek bete behar zukeela lanpostua, dagokion izendapen askeko prozedura bete ondoren.

4.- Era berean, salatzaileari bidegabea iruditzen zaio "lanpostua betetzeko proba objektiboa" egin ez izana, "erakunde autonomoko lanpostu hori bete behar izan zen azkeneko aldiaren egin zen moduan".

5.- Horren guztiaren arabera, salatzaileak honako hau azaldu du:

- a) Gai hori "publikoki salatu" zuela Administrazio Orokorraren Sektoreko Mahaiaren 2014ko abenduaren 18ko bileran; hizpide dugun lanpostua betetzeko prozedurari buruzko informazioa eskatu ziola Funtzio Publikoko Zuzendaritzari; eta (...)ren dimisioa eskatu zuela "edo, are, gobernuak kargutik ken dezala berehala".

- b) Etika Publikorako Batzorde honen aurrean salaketa aurkeztu zuen aldi berean, interesdunak hizpide dugun hornikuntzaren kontrako administrazio-errekurtsoa jarri zion Funtzio Publikoko sailburuordeari.

6.- Aurreko ataletan azaldutakoa oinarri hartuta, batzorde honetako presidenteari zuzendutako *petituma* dakar interesdunaren idazkiak. Interesdunak eskatzen du, hain zuzen ere, hasiera eman dakiela bere idazkian "baieztatutakoa egiaztatzeko jarduketei" eta "gorabehera horiek guztiak egiaztatu ondoren, (...) kargutik kentzea ebatz dadila, izan ere, goikargudunaren idazkari lanpostua *ad personam* betetzeko jarduketek, erabat baliogabeak edo, subsidiarioki, deuseztagarriak izanagatik, nabarmen hausten baitituzte legeak, edozer enplegatu publikoren betebeharrak eta kode etikoa, eta Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako etika- eta jokabide-kodea".

7.- 8/2014 Erabakian nabarmendu genuen moduan, EPB honi ez dagokio administrazio-jardunaren legezketasunari buruzko epaiak ematea. Batzorde honen egitekoa da, hain zuzen ere, Etika eta Jokabide Kodeari (EJK) boluntarioki atxiki zaizkion kargudun publikoek eta parekatuek hura betetzen duten aztertzea eta horri buruzko irizpena ematea. Horrela bada, aztergai ditugun jarduketek kontra jar daitezkeen administrazio-errekurtsoak ebazteko legezko gaitasuna duten agintaritza publikoek edo, hala badagokio, jarduketa horien kontra aurkezten diren errekurtsoak edo salaketak ebazteko eskumena duten epaileek eta epaitegiek ebartziko dute hizpide ditugun jardunak bat datozen ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin; betiere, hizpide ditugun jarduketa horiek Etika eta Jokabide Kodean jasotakoarekin bat etortzeari buruz batzorde honek erabaki dezakeena bazter utzita.

8.- Horrek ez du esan nahi, edonola ere, kargu publikodunen jokabide etikoaren barruan sartzen ez denik legea betetzea eta, ondorioz, batzorde honi ez dagokiola hura zaintzea. Aitzitik, legeak betetzea oinarritzko arau-etikoetako bat da, kargu publikodun guztiek bete beharrekoa. Izan ere, ordenamendu juridikoan modu orokorrean ezarritako jokabide-arauei heldu zaie Etika eta Jokabide Kodean debekatutako jarrera eta jokabideetako asko ezartzeko. Kasu horietan, beraz, kargu publikodunaren legez kanpoko edozer jokabide Etika eta Jokabide Kodearen kontrakotzat hartuko da automatikoki. Horretaz gainera, Etika eta Jokabide Kodea onartzen duen Gobernu Kontseiluaren ebazpenean nabarmendu den moduan, testu hori osatzen duten ataletan ez da jaso "legezko edo arauzko betebeharrei buruzko aipamenik, hau da, ordenamendu juridikotik ondorioztatutako eskakizunak zorrotz betetzeari buruzkorik, eskakizun horiek berariaz emandako legeetan edo erregelamenduetan nabarmendu beharko baitira". Ebazpen horretan xedatutakoaren arabera, ez bada era horretako aipamenik egin ez da izan Kodean ezarritako arau etikoen artean ez dagoelako legeak betetzeko betebeharra; aitzitik, horiek jasotzea hain da bistakoa non ez den "egokitza jo" berriz ere horri buruzko aipamenik egitea. Gai horri buruz, hauxe zehaztu da testu horretan aurrerago: "Hortaz, ziurtzat jotzen da legezko eskakizun horiek (hala nola zigor- edo zehapen-zuzenbideari dagozkionak) kargu publikodunak arduradun publiko moduan eta, hala egokituz gero, herritar moduan dauzkan legezko betebeharren eta eginbideen beharrezko parte direla".

9.- Nolanahi ere, ez litzateke zuzena jotzea kargu publikodun baten legez kontrako edozer jardunbidek berekin dakarrela ordenamendu juridikoa betetz jardutearen oinarritzko arau

etikoaren urraketa; betiere, zenbait kasu zehatz eta jakin batzuk bazter utzita –non legeetan ezarritakoari helduz ezarri den Etika eta Jokabide Kodeko kasuan kasuko arau etikoa–. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko epaileek eta auzitegiek egunero ebazten dute herri administrazioek emandako arauak eta egintzak legez kontrakoak diren. Arau eta egintza horiek egiteko edo onartzeko prozesuan parte hartu zuten kargu publikodunek ez dute zertan izan etikaren kontrako jarrerarik edo jokabiderik. Zazpigarren atalean 8/2014 Ebazpena aipatu dugunean aurreratu dugun moduan, kargu publikodun batek legea betez jardutearen oinarrizko arau etikoa hautsi duela joko da baldin eta "nahita jardun badu legez kanpo", arauak "kontzienteki eta nahita" hautsiz.

10.- Horrek esan nahi du nekez hautsi daitekeela kargu publikodunei legea errespetatzea eskatzen dien oinarrizko arau etikoa; betiere, ordenamendu juridikoaren arrazoiz defenda daitekeen interpretazioa oinarri hartuta jardun badute, edo Etika eta Jokabide Kodeko 6. ataleko 4. idatz-zatian jasotakoa bete badute. Atal horretan xedatutakoaren arabera, beren eskumenak erabiltzean kargu publikodunen "erabaki, ebazpen eta ekintza guztiak informazio fidagarrian oinarrituta egongo dira (txostenak, azterlanak, proiektuak edota irizpenak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere".

11.- Ebazpen hau salaketa-idazki bati erantzuteko eman da. Salaketa-idazki horrek, antza, ideia hau du oinarri: gaitzetsitako administrazio-jarduketak –salatzailearen iritziz legez kontrakoak denak– berekin dakar, nahitaez, hura gauzatu zuen kargu publikodunak Etika eta Jokabide Kodea efektiboki hautsi izana. Horixe ondorioztatu dugu, juridikoak baitira idazki horretako zazpi orrietan eman diren argumentuak. Idazkiaren amaierako *petitumean* soilik adierazi da "legezkotasuna nabarmen hausteaz" gain, auzitan den jarduketak hausten duela, baita ere, "2013ko maiatzaren 28an Gobernu Kontseiluak onartutako Etika eta Jokabide Kodea", eta ez du batere zehaztu zer printzipio eta zer jokabide hautsi diren haren iritziz.

12.- Egungo lanpostu-zerrendan ez da jaso salatzaileak aintzat hartu ez dela adierazi duen alde zuzeneko eskarmentuaren baldintza. Bestetik, 2012ko abenduko irudi bat ageri da salatzailearen idazkian. Irudi horretan, "00" kodea dago dagokion laukian, baina kode hori ez dago normalizatuta eta, ondorioz, ezin daiteke inongo baldintzarekin lotu. Horiek horrela izanik, Etika Publikorako Batzorde honek Funtzio Publikoko Zuzendaritzari kontsultatu dio ea salaketan aipatutako lanpostuak ba al duen edo izan ote duen alde zuzeneko eskarmentuarekin lotutako baldintzarik eta, hala bada, baldintza hori inoiz aldatu den zehaztu dezala. Haren erantzuna argia eta eztaba daezina izan da: salaketan aipatutako lanpostuak ez du sekula izan hura lortu nahi duten pertsonen eskarmentuarekin lotutako baldintzarik.

13.- Salatzaileak iritzi dio proba objektiboa egin beharra dagoela hizpide dugun lanpostu hori betetzeko prozesuan arbitrariotasunean ez erortzeko. Horren harira, nabarmendu beharra dago hura ez dela hizpide dugun lanpostuko baldintzetako bat eta ez dela, oro har, izendapen askeko lanpostuak betetzeko prozeduretan eska daitekeen zerbait.

14.- Aurreko zenbakietan azaldutakoa gogoan, ondoriozta dezakegu salaketa jarri aurretik salaketaren sinatzaileak ez duela egiaztatu urratutzat jo dituen baldintzak egiazki existitzen

diren. Gai hori, edonola ere, Funtzio Publikoko sailburuordeari jarri dion administrazio-errekurtsioan argi dezake, nahi izanez gero; edo, bestela ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, egoki den aurkapena egin ondoren, betiere.

15.- Salaketa-idazkian ez da zehaztu Etika eta Jokabide Kodeko zer printzipio, balio eta jokabide hautsi diren; eta ez da zehaztu, ezta ere, salaketa-idazkian bertan azaldutako administrazio-jarduketek zer eratan hautsi duten Kodea. Horrela bada, Etika Publikorako Batzorde honek salaketa ez onartzea besterik ezin du ebatzi, bere jakintza-eremu objektibotik kanpoko gaiari heldu baitzaio.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk hartutako

ERABAKIA:

Lehena.- Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoko goi-kargudunaren idazkari lanpostua betetzeari buruz interesdunak jarritako salaketa ez onartzea, Etika Publikorako Batzorde honen jakintza-eremu objektibotik kanpo baitago, eta auzi juridikoa planteatu baita betetako lanpostuko baldintzen balizko urraketari buruz, nahiz eta sekula izan ez den era horretako baldintzarik.



Jon Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteizen, 2015eko otsailaren 2an